



OSALAN
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO
EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD
Y SALUD LABORALES

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

PERTSONA HELBURU
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

KUDEAKETA PLANA OSALAN 2014

PLANIFIKATUTAKO
EKINTZEN
DESKRIBAPENA





2014. urte honetan ere, aurtengorako lan-programa aurkeztu nahi dizuegu Euskadiko herritarrei. Kudeaketa Plan honetan, dagoeneko garatzen ari garen ekintzak eta gauzatu nahi ditugun ekimenak jaso ditugu. Guztiek ere erakunde honen jarduera inspiratzen duen helburuari erantzuten diote: autonomia-erkidego honetako langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea, alegia.

Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2011-2014 aldirako Euskal Estrategiak markatutako zikloaren bukaeran gaude. Estrategia hori OSALANen kudeaketa-planen bidez gauzatzen joan da, eta hor kokatzen da urte honi dagokiona ere. Erakundearen 2014ko jarduera, beraz, bat dator indarrean dagoen Estrategiak zehaztutako irizpideekin, eta, ildo horretan, aurrekoen jarraipena da Plana.

Dena den, Estrategia bukaerara heltzeak modu berezian baldintzatzen du aurtengo Kudeaketa Plana; izan ere, Eusko Jaurlaritzak laneko segurtasun eta osasunaren arloan datozen urteetan landuko dituen politikak eta ekintzak bideratzeko irizpide berriak diseinatu behar ditu, dagokion esparruan, eta Estrategia berri batean islatu. Horretarako, behar-beharrezkoa da jada gauzatutakoaren balantzea egitea eta Euskadin laneko arriskuen prebentzioaren arloan egun dagoen egoeraren diagnostikoa egitea.

Beraz, ardura garrantzitsua dugu geure eskuetan, eta lan handia egiteke. Lan hori Plan honetan aurkezten ditugun ekintza guztiekin batera egingo dugu; horietako batzuk abian daude jada, eta beste batzuk hautemandako behar berriei erantzuteko diseinatu ditugu.

Badakigu proposatzen dugun Plana asmo handikoa dela eta ezin dugula gure kabuz gauzatu; hori dela eta, aktiboki sustatuko dugu, Administrazioaren barruan eta kanpoan, gure ekintzei balioa eman diezaieketen eragileen lankidetzari. Kudeaketa Plan honek oinarritzotzat jotzen du laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean jarduten duten eragileekiko aliantzak ezartzea eta haiekin lankidetzan aritzea; kasu batzuetan, gainera, ezinbestekoa da ekimenak gauzatzeko.

Ikuspegi horretatik jorratu dugu 2014rako Kudeaketa Plana, gogo biziz eta ilusioz, bai eta zuhurtziaz ere. Ezin uka aurrean ditugun erronkak zailak direla, baina ziur gaude lorgarriak direla, gaitasun handia duten eta proiektuan inplikazioa duten profesionalen ahaleginari esker.

Izaskun Urien Azpitarte
Osalaneko zuzendari nagusia

aurkibidea

- 1 AURKEZPENA
- 2 I. AURREKARIAK
- 4 II. OSALANen 2014rako KUDEAKETA PLANA
 - 4 1. HELBURUAK ETA IRISMENA
 - 5 2. JARDUERA ESPARRUAK
 - 8 3. GARAPENA
 - 10 4. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA
 - 10 5. EKINTZAK
- 24 ERANSKINA: OSALANek 2014rako ANTOLATUTAKO JARDUNALDI ETA EKITALDIAK

11
LAN
ARLO

= 13 jarduera esparruak

OSALAN 2014

2 JARDUERA
INSTITUZIONALAKO
ESPARRU

OSALAN erakundearen 2014rako Kudeaketa Planak itxi egiten du Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2011-2014 aldirako Euskal Estrategiaren indarraldiak markatutako zikloa. Eusko Jaurlaritzak bereziki OSALANen jardueraren bidez garatu du Estrategi hori. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN) ezinbesteko eragilea izan da eta da Eusko Jaurlaritzarentzat, laneko arriskuak prebenitzera zuzendutako politikak kudeatzeari dagokionez.

Illo horretan, aurtengo Kudeaketa Planak osatu egiten du aurreko hiru ekitaldietan gauzatutako lana, eta, aldi berean, Gobernuak datozen lau urteetan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2015-2018 aldirako Euskal Estrategiaren testuinguruan, jorratu nahi dituen ekimen berrien lotura gisa jarduten du. Eta OSALANek Estrategia berria diseinatzeari ematen dio lehentasuna 2014rako Kudeaketa Planaren barruan.

Hala, aurreko kudeaketa-planen jarraipena duzue honako Kudeaketa Plan hau. Lan-arloei dagokienez, aurrekoen egitura bera du; diseinuaren, zabaltzearen, gauzatzearen eta segimenduaren aldetik, berriz, lehengo oso antzekoa da. Ezer aipatzekotan, esan dezagun kudeaketa sinplifikatzeko eta segimendu zorrotzagoa egin ahal izateko aldaketa txiki batzuk egin dizkiogula.

- Jarduera hamahiru lan-arloren inguruan egituratzen da, eta horietako bat erakundea sortzeko legean eta egitura zein funtzionamendua arautzen dituen erregelamenduan esleitutako funtzioak betetzeko jarduerari dagokio.
- Kudeaketa Planaren helburuak indarrean dagoen Estrategiaren ildo berekoak dira, baina uneko errealitatera eta ekitaldi honetarako identifikatutako beharretara egokituta daude.
- OSALANen aurreko urteetako jarduera inspiratu duten balioek bizirik diraute Kudeaketa Plan honetan ere; horren harira:
 - EAEn laneko arriskuak prebenitzeko eginkizunean parte hartzen duten eragileen inplikazio eta lankidetzak bultzatuko ditugu.
 - Herritarrei abian jarritako ekimenak ezagutaraziko dizkiegu, eta haien partaidetza sustatuko dugu, horretarako Internetek eskaintzen dituen aukerez baliatuz.
 - Erakundea osatzen duten pertsonen gaitasuna eta garapen profesionala indartuko ditugu, haiek baititugu gure aktibo nagusi.
 - Erakundearen baliabideei albait errentagarritasun handiena ateratzen saiatuko gara, soiltasun-politika mantenduz, baina ekimenen kalitatea bermatuz.
- Planaren garapenaren segimendu sakon eta jarraitua egingo dugu, eta ekintzen emaitzak ebaluatuko ditugu. Erakundea zuzentzen duen organoari eta euskal gizarteari horren guztiaren berri emango diegu.

1. Helburua eta irismena
2. Jarduera esparruak

II. OSALANen 2014rako KUDEAKETA PLANA

1. HELBURUA ETA IRISMENA

OSALANen 2014rako Kudeaketa Planaren helburua erakundeak aldi horretan garatuko dituen jarduerak deskribatzea da, eta bi helburu ditu:

- Batetik, erakundearen eta bertako profesionalen gidoia izatea, gauzatu beharreko ekintzei eta horiek egikaritzeko baldintzei dagokienez: horien helburuak, egutegia, gauzatu beharreko ekintzak eta segimendurako adierazleak.
- Bestalde, laneko arriskuei loturiko EAEko eragile eta interesdun guztiei, al bait gardentasun handienaz, OSALANek urte horretarako prestatuta dituen ekimenak eta lortu nahi dituen emaitzak jakinaraztea; hartara, nahi dutenak, erakundera hurbildu ahalko dira, proposamenetan hein batean edo bestean parte hartzeko.

Hortaz, Planak OSALANen 2014ko jarduera zuzenduko du, eta, ekitaldiaren bukaeran, betetze-mailari buruzko ebaluazioa egingo dugu.

Planaren irismenari dagokionez, Zerbitzu Zentraletan eta lurralde-zentroetan atxikitako langile guztiak hartzen ditu.

2. JARDUERA ESPARRUAK

Lehen esan dugun moduan, 2014rako Kudeaketa Plana aurreko planen oso antzera dago antolatuta; egituraren aldaketa txikiren bat baino ez dugu egin, aurreko urteetan bildutako esperientzian oinarrituta, kudeaketa hobetzeko egokitzat jo baitugu.

Hala, adibidez, ekintzak gehiago definitzen saiatu gara, proiektu espezifikoak (ekintzak) jarduera-politikatetik (asmoak) bereiziz, azken horiek zuzendaritza-arloari baitagozkio hein handiagoan.

Bestalde, diseinatutako ekintzen bidez egindako lana eta proiektu gisa kudeatutako lana, OSALANek Planaren hamairu jarduera-arloetan gauzatzen duena, bereizi egin behar da erakundearen jarduera instituzional deritzonetik. Azken horretan, OSALANi zuzenean bere Sorkuntza Legeak eta Egiturari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduak esleitzen dizkioten funtzioak betetzeko jarduerak sartzen dira. Arlo horrek behar desberdinak ditu, gainerako eremuekin konparatuta, eta horiek bestelako segimendua eta balorazioa egitea eskatzen dute.

2014rako Kudeaketa Planaren barruan garatu beharreko ekintzak, beraz, honako lan-arloetan banatzen dira:

A.1. KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Organismoarentzat lehenetsuneko izaten jarraitzen du laneko arriskuen prebentzioaren kultura ezagutaraztea eta, ildo horretan, arlo hori sustatzen jarraitzen da, ahalegin handienak **OSALAN Internet bidez proiektatzean** jarritz, gure mezuak al bait pertsona kopuru handienari helarazteko bide gisa.

Laneko arriskuen prebentzioa **hezkuntza-esparru eta -maila** desberdinetara eramatera bideratutako ekintzak ere badaude, batez ere Lanbide Heziketara eta Unibertsitateara zuzenduak.

A.2. LANEKO ARRISKUAK PREBENTZEKO EKINTZEN KALITATEA

Enpresek eta prebentzio-zerbitzuek laneko arriskuen prebentzioaren arloan gauzatutako ekintzen kalitatea hobetu nahi da, arreta prebentzio-jarduerarako oinarritzko tresnetan jarritz, hots, Arrisku **Ebaluazioan** eta **Osasunaren Zaintzan**, lantegietan horiek aplikatzen dituzten eragileekin lankidetzan.

A.3 ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Administrazioaren eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren indartu nahi da, **balio handiagoko ekintzak** elkarrekin garatzeko eta **herritarrei zerbitzu hobea emateko**, bakoitzak bere eskumen-esparrutik, laneko segurtasun eta osasunean eragina duten proiektuetan lankidetzan arituz. Ildo horretan, OSALANen kudeaketarako ezinbestekoa da Osasun eta Enplegu sailen inplikazioa eta konpromisoa, zuzenean laneko segurtasun eta osasunarekin erlazionaturako administrazioak izaki.

A.4 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN

Asmoa **lantokietan presentzia aktiboa izatea** eta EAEko enpresa eta erakundearen prebentzio-egoera lehen eskutik ezagutzea da, urritasunak konpontzeko eta prebentzio-neurriak abian jartzeko laguntza tekniko eskaintze aldera. Eskuragarri ditugun datuen arabera, lehenetsuneko josten diren jarduerak eta arrisku zehatzen prebentziora orientatutako kanpainak egiten dira.

A.5 LAN BALDINTZAK ETA LAP KUDEAKETAN TXERTATZEA

Lan-baldintzak hobetzea da helburu nagusia arlo horretan, eta baldintza horiek zehazten dituzten faktoreetan sakondu nahi da, **laneko tresnei** eta **gai kimikoen** eraginpean egotean arreta berezia jarriz, orobat **emakume langileen** arrisku-prebentzioan, arlo honetan urritasun bereziak dituen taldea delako.

A.6 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN

Sektorean lan egiten jarraitzen da, laneko arriskuaren prebentzioa **arrantza-, nekazaritza- eta basozaintza-jardueretan** sustatuz, jarduera horietan arrisku handiak egoten baitira eta horien ingurunea bereziki konplexua izaten baita prebentzio-ekintza garatzeko. Era berean, sektorearekin harreman handia duen **elikagai-industria** jorratzen da, Elikapreben proiektuaren bidez.

A.7 PRESTAKUNTZAREN ETA IKERKETAREN BIDEZ EZAGUTZA SORTZEA

OSALANen beste lehentasun bat prebentzio-lanak gauzatzeko gaituta dauden pertsonak izatea da, bakoitza bere arloan eta dagokion funtzioarekin; asmo horrekin, erakundeak prestakuntza- eta dibulgazio-lan handia egiten du. Puntualtasunez eskaintzen den online informazioaz gainera, aurtien **e-learning prestakuntza** gehituko zaio, Moodle plataformaren bidez.

Halaber, laneko segurtasunaren eta osasunaren profesionalen zuzendutako ezagutza-sorkuntza sustatu nahi da, aplikagarritasun-irizpideak betetzen dituzten **ikerketaproiektuen** bidez, zeinak finantzatzen jarraituko baitira.

A.8 OSASUNAREN ZAINZTA

Esparru horretan, langileen osasunaren zaintza **espezifikoa** izatea da helburua, dauzkaten arriskuak aintzat hartuz, eta **zorrotasun zientifikoa** eta kalitatea bermatzen dituzten tresnekin gauzatzea. Planteatzen den beste helburuetako bat **lanbide-gaixotasunen** kausak, gertaera maximoa eta prebentzio-tratamendu onena ikertzea da.

A.9 ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA

Gure Autonomia Erkidegoa **zerbitzuen gizarte** bihurtzen ari da, eta zerbitzuen sektoreak langile-biztanleriaren ehuneko handiena hartzen du. Ingurune horretan, bereziki garrantzitsuak dira arrisku ergonomiko eta psikosozialak, sektoreko jardueretan presentzia baitute. Arrisku horiek **ez dira oso ezagunak** eta ez dituzte sakontasunez jorratzen enpresek eta laneko arriskuaren prebentzioko eragileek; horrek justifikatu egiten du halakoak tratatzeko lan-esparru bat egotea.

A.10 INFORMAZIO SISTEMAK

Arlo horretan programatutako ekintzen helburua EAEko **langileen lan-baldintzak eta osasuna** ezagutzea ahalbidetuko duen informazioa izatea da, hautemandako arazo eta beharren gainean jardun ahal izateko, bai OSALANDik, eta bai laneko arriskuaren prebentzioan interesak dituzten taldeetatik.

A.11 PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

Lan-esparru horren barruan, OSALANen barne-kudeaketa sartzen da, eta erakundeak, prozesuak hobetuz, herritarrei eskaintzen dien **zerbitzua hobetzera** zuzendutako jarduerak jasotzen dira bertan. Helburua erakundea osatzen duten pertsonen lana erraztea da, beren eginkizuna betetzeko prestakuntza eta gaikuntza eskainiz, eta

horretarako beharrezkoak diren tresnak eta laguntza-sistemak eskuratuz. **Aurrerabide** proiektua Eusko Jaurlaritzaren osoan kudeaketa publiko aurreratua gauzatzeko eredu berri bat ezartzera zuzenduta dago, eta OSALANek partaidetza aktiboa du horretan. Hain zuzen ere, proiektu hori aukera bikaina da, besteak beste, erakundearen kudeaketa hobetzeko neurriak hartzeko.

A.12 JARDUERA INSTITUZIONALA

Lehen adierazi dugun moduan, arlo horretan, OSALANek bere Sorkuntza Legearen eta Egiturari zein Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren arabera bete beharreko funtzioetarako gauzatzen dituen ekintzak jasotzen dira; batez ere, **laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen ikerketa**; agintaritzari, erakundeei, enpresei, langileei eta horien ordezkariari **laguntza teknikoa** eskaintzea; eta, orobat, **prebentzio-zerbitzuetako osasun-jarduera kontrolatzea**, Laneko Osasunaren Unitatearen bidez.

A.13 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA

Agente sozialen arteko berriazko lankidetzak estua da helburua, elkarren intereseko esparruetan, adibidez: Laneko Arriskuaren Prebentzioa enpresa txiki eta ertainetan, kanpaina eta giden zabalkundea, parte-hartze aktiboa laneko arriskuaren prebentzioko foro teknikoetan, online prestakuntzako lankidetzak, azpikontratazioaren eragina industriako lan-istripuetan, arrisku psikosozialen ebaluazioa, eta abar.



3. GARAPENA

2014rako Kudeaketa Plana garatzeko aurreikusitako antolaketa eta funtzionamendua iazkoen oso antzekoak dira, baina aldaketa txikiren bat egin dugu, hobetze aldera.

2013ko hasieran egindako azterlan baten emaitzetan oinarrituz, zeinak erakundeko langileen iritziak bildu baitzituen, lan-funtzionamendua aldatu egin genuen, erakundearen egitura organikora hobeto doitzeko eta, aldi berean, langileen eta erakundearen interesak bateratzen saiatzeko. Ildo horretan mantentzen da 2014rako Kudeaketa Planerako aurreikusitako sistema. Hartara, ekintzen ardurak nagusiki Lurralde Zentroetako Laneko Arriskuen Prebentzioko arduradunena, Laneko Osasuneko Unitateko arduradunena eta Zuzendaritza-taldeko kideena da, bakoitzaren izaeraren arabera.

Dena den, zenbait jarduera ardurak hierarkikoko lanposturik ez duten pertsonen esleitzea erabaki dugu, pertsona horiek, beren profil profesional, esperientzia eta ezagutzak direla-eta, jarduera horiek zuzentzeko bereziki egokitzat jo baititugu.

2014rako Kudeaketa Planean jasotzen diren ekintzak proiektuetan txerta daitezke eta hala kudeatzen dira. Hartara, diseinu-, egikaritze-, segimendu- eta ebaluazio-faseetatik pasatzen dira; fase horietako bakoitza horretarako aurreikusitako sistematikaren bidez gauzatu behar da, eta egoki diren euskarrietan dokumentatu. Ondorengo ataletan deskribatzen dira horiek guztiak.

3.1 ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK

• OSALANen Kudeaketa Plana garatzeko lana antolatzean, eskakizun desberdinak dituzten bi jarduerak esparru bateratu behar dira. Batetik, programatutako ekintzak daude, eta horien egikaritze-baldintzak xehetasun handiz zehaztuta daude, berrikustera derrigor dezaketenezko egoerak alde batera utzita. Bestalde, ezusteko jarduerak bolumena agertzen da, gertatutako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen, jasotako laguntza teknikoko eskaeren, alerten, salaketan eta OSALANek aurreikusten ez dituen, eta tratatu behar diren, bestelako gertakizunen ondorioz.

• Idiosinkrasia horrek mugatu egiten du lan egiteko modua, erakundeak malgutasuna eta arintasuna behar baititu aldaketen aurrean erreakzionatzeko. Ildo horretan, Kudeaketa Planeko ekintzetan arduradun batzuk izendatzen dira, ekintzak diseinatzeaz, aurreikusitako baldintzak egikaritzeaz eta jarraipena egiteaz arduratuko direnak, eta gerta litezkeen eta erreakzio bat eskatzen duten desbideratzeaz ohartarazten dutenak. Arduradun horiek, aipatu dugun moduan, eskatutako funtzio-esparruaren eta espezializazioaren arabera izendatuko dira, erakundearen egitura organikoa errespetatzeko irizpide orokorra mantenduz.

• Arduradun bakoitzak, behin esleitutako ekintza dimentsionatu duenean eta egikaritzeko beharrezko baliabideak zenbatetsi dituenean, parte hartu behar duten pertsonen dagozkien arduradun hierarkikoei eskatuko dizkie baliabideak. Proiektuak eta eguneroko jarduera bateragarri bihurtu behar dira, eta Zuzendaritzak markatu behar ditu pertsonak ataza bakoitzean aritzea zehazten duten lehentasunak.

• Ekintzak erakundeko hiru zuzendariordeek ikuskatuko dituzte, gaiaren arabera. Horiek, sortu litezkeen gatazkak lehentasunen arabera antolatzeaz eta konpontzeaz gainera, ekimenen aurrerapenen eta emaitzen segimendua egingo dute.

• Langileek jarduera desberdinetan izango duten partaidetza ekintzen arduradunek eta pertsonen zehaztuko dute elkarrekin, eta horien interesak Organismoaren interesarekin bateratzen saiatuko dira, lan-kargetan oreka bilatuz.

• 2014rako Kudeaketa Plan honetarako OSALANek dituen baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak ekitaldi honetarako onartutako aurrekontuetan daude jasota. Giza baliabideei dagokienez, erakundeak arrisku-prebentzioko diziplina desberdinetan adituak diren profesionalak ditu, eta horiei kudeaketa-eremuetarako beharrezko laguntza tekniko eta administratiboa eskaintzen die.

3.2 LANEKO FUNTZIONAMENDUA

2014rako Kudeaketa Plana garatzeko eta gauzatzeko lanak honela banatzen dira:

• Ekintzak izendatutako arduradunek diseinatuko dituzte; arduradun horiek dagozkien fitxetan dokumentatuko dute diseinua, eta sareko (W) espazio partekatuan horretarako prestatuta dauden karpitetan artxibatuko. Aurreko urteetako ekintzen jarraipen diren ekintzen kasuan, fitxa eguneratu egingo dute, eta dagokion kokalekuan artxibatuko.

• Organismoaren Zuzendaritzak onartu egin beharko ditu proposatutako ekintzak eta egikaritze-baldintzak, baita dagozkien arduradunek proposatuta egin litezkeen aldaketa garrantzitsuak ere. Aldaketa horiek ekintza-fitxan jasota utzi beharko dira, segimendua egin ahal izateko.

• Ekintzen egikaritzea eta segimendua diseinu-baldintzen arabera egiaztatuko dira, eta helmena, egutegia, atazak eta adierazleak hartuko dira kontuan. Hori izendatutako arduradunen lana izango da, gaiaren arabera dagokien zuzendariordearen ikuskaritzapean.

• Organismoko langile guztiek parte hartuko dute beren arduradun hierarkikoei esleitutako ekintza eta lan guztiak egiten, eta arduradun horiek honako irizpide hauen arabera banatuko dute lana:

–Pertsonak prebentzio-diziplinetan eta intereseko ezagutza-esparruetan espezializa daitezten sustatzea, haien garapen pertsonal eta profesionala sustatuz.

–Aukera-berdintasuna eta lan-kargaren banaketa bidezkoa bermatzea.

3.3 GIZARTE-ERAGILEEN EKARPENAK

2014ko Kudeaketa Planaren segimendua egiteko, eta litezkeen ekarpenak baloratzeko, lantalde egonkor bat sortuko da, OSALANek eta gizarte-eragileek zehazten dituzten pertsonen eta/edo teknikariek osatuta. Horiek aldi behin elkartzeko dira, Kudeaketa Planeko ekintzen garapenari buruzko informazioa jasotzeko eta ekarpenak egiteko, hala badagokio, eta aipaturiko taldeak egokitzat baderitzo. Ekarpene horiek Kudeaketa Planeko ekintzaren bat nabarmen aldarazten badute, Taldearen azken bileratik hurbilen geratzen den OSALANen Kontseilu Nagusiak onespena eman beharko die.




4. Segimendua eta ebaluazioa
5. 2014rako kudeaketa planean jasotako ekintzak

4. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Plangintzaren Zuzendariordetza arduratuko da Kudeaketa Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteaz, zuzendariorde bakoitzak bere funtzio-esparruan jasotako ekintzak ikuskatzeko ahalmenari kalterik egin gabe.

Kudeaketa Planaren segimendua lau hilean behin egingo da; horretarako, ekintzen arduradunek fitxetan aurkezten dituzten aurrerapenei buruzko informazioa erabiliko da. Informazio hori Plangintza Zuzendariordetzak egingo duen egoera-txostena egiteko oinarria izango da, eta txosten hori Zuzendaritza Batzordeak eta Organismoaren Kontseilu Nagusiak analizatuko eta baloratuko dute.

Ekitaldiaren bukaeran, Plangintza Zuzendariordetzak memoria batean laburbilduko ditu OSALANek urtebetean garatutako jarduerak, eta lan-arlo desberdinetan lortutako emaitzak eta ezarritako helburuen betetze-maila baloratuko ditu.



5. 2014rako KUDEAKETA PLANEAN JASOTAKO EKINTZAK

Atal honetan, OSALANen 2014rako Kudeaketa Planean jasotzen diren ekintzak dituzue, lehen aipatutako lan-esparruetan sailkatuta.

Ekintza batzuk aurreko urteetan hasitakoak dira (urte anitzeko proiektuak); beste batzuk, berriak. Berri horiek, nagusiki, OSALANgo langileek Zuzendaritzari egindako proposamenetan dute jatorria, taldeak ondo ezagutzen baititu bai prebentzioari dagokionez EAEn dagoen egoera, bai konpondu beharreko arazo eta behar nagusiak ere. Proposamen asko helarazi zaizkigu, eta interesgarriak guztiak; horregatik, zaila izan da 2014an gauzatuko ditugunak hautatzea.

Aukeraketa egiteko, Zuzendaritzak hainbat alderdi hartu ditu aintzat: proposamena egokia izatea, helburu argiak izatea, urtean edo legealdian ixteko modukoa izatea, eta, batez ere, eskuragarri dauden baliabideen arabera egingarria izatea. Oztoporik handiena azken alderdi hori da, errealistak izan behar baitugu, eta organismoaren jardura eskura ditugun baliabideen arabera dimentsionatu behar baitugu, nahiz eta horrek zenbait ekimen atzeratzera behartzen gaituen. Nolanahi ere, gure langileek egindako proposamen guztiekin sortutako proiektu-zorroa balio handiko aktiboa da, eta hortxe izango dugu datozen urteetarako ere.

Kudeaketa planean jasotako ekintzak

- A.1 KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA
- A.2 LANEKO ARRISKUAK PREBENTZEKO EKINTZEN KALITATEA
- A.3 ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA
- A.4 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA,
- A.5 LAN BALDINTZAK ETA LAP KUDEAKETAN TXERTATZEA
- A.6 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREANA
- A.7 PRESTAKUNTZAREN ETA IKERKETAREN BIDEZ JAKINTZA SORTZEA
- A.8 OSASUNAREN ZAINZA
- A.9 ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA
- A.10 INFORMAZIO SISTEMAK
- A.11 PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA
- A.12 JARDUERA INSTITUZIONALA
- A.13 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN

A.1 KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

AC.1.1 Hedabideetan laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako gaien presentzia sendotzea, laneko arriskuak prebenitzeko kultura sustatzearren eta jendartera zabaltzearren.

AC.1.2 2014rako Kudeaketa Plana eta OSALANen jardueraren 2013ko Memoria prestatzea eta ezagutaraztea, eta Kudeaketa Planaren aldiari behingo segimendua gauzatzea.

AC.1.3 Enpresaburuen arteko topaketetan, laneko segurtasun eta osasunari buruzko mezuak zabaltzea.

AC.1.4 Langile autonomoen artean, laneko arriskuen prebentzioa bultzatzea, prestakuntzaren eta jardunbide egokiaren trukeen bitartez, sektoreko elkarten lankidetzaren bitartez.

AC.1.5 OSALANen webgunearren eta sare sozialen egitura eta edukiak hobetzen jarraitzea.

AC.1.6 OSALANen Laneko Segurtasun eta Osasuneko IV. Ikastaroa antolatzea, EHUko **Udako Unibertsitateak** eskaintzen dituen ikastaroen barruan.

AC.1.7 Lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasleen artean laneko arriskuak prebenitzeko kultura sustatzea, kolektibo horiei OSALANera bisitan etortzeko aukera emanez, LAPari buruzko informazioa eta dokumentazioa jaso dezaten.

AC.1.8 OSALANeko langileek laneko arriskuen prebentziora gauzatzen dituen jardueretan **euskarren erabilera** sustatzea, eta, batez ere, enpresekiko harremanetan.

AC.1.9 ADI proiektua: Gazteen artean laneko arriskuen prebentzioa sustatzea, EAEko Lanbide Heziketako prestakuntza-zentroetara bisitaldiak eginez.

AC.1.10 Laneko arriskuen prebentzioa Lehen eta Bigarren Hezkuntzan sustatzeko plana. Lehendik dauden edukiak ezagutaraztea.

AC.1.11 Lankidetzaren hitzarmenak ezartzea Zirkulazio Zuzendaritzarekin lankidetzan, enpresak eta Prebentzio Zerbitzuak **errepideko lan-istripuen** gaian sentsibilizatzeko.

AC.1.12 Laneko arriskuen prebentziora jardunbide egokiak dituzten enpresei eta udalei esker ona adieraztea

AC.1.13 Laneko segurtasun eta osasunari zein laneko arriskuen prebentziorari buruzko **bideo-lehiaketa** bat antolatzea.

AC.1.14 OSALANen argitalpen-katalogoa eguneratzea.

A.2 LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO EKINTZEN KALITATEA

AC.2.1 Zubien eraikuntzan laneko arriskuak prebenitzeko gida teknikoa prestatzen jarraitzea.

AC.2.2 Igerilekuetako laneko arriskuei buruz dagoen dokumentazioa berrikustea eta kanpaina espezifikoko bat diseinatzea.

AC.2.3 OSALANen altuera-lanetako segurtasun-gidak eguneratzea.

Enpresen eta prebentzio-zerbitzuen LAP jardueren kalitatea hobetzea.

AC.2.4 Enpresetan eta Prebentzio Zerbitzuetan **arrisku-ebaluazioen kalitatea** hobe dadin sustatzea.

AC.2.5 Kanpoko Prebentzio Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen **osasuna espezifikoki zaintzea**, alderdi metodologikoak, antolamendua eta alderdi kulturalak landuz.

AC.2.6 Enpresek egiten dituzten **gai kimikoen ebaluazioen kalitatea** sustatzea eta esparru horretan lankidetzaren espazioak ezartzea.

AC.2.7 Eraikuntza-lanetan laneko arriskuak prebenitzeko **baldintzen agiri teknikoa** prestatzea.

AC.2.8 Jabe-komunitateetan egindako eraikuntza-lanetarako Laneko Arriskuen Prebentziorari buruz OSALANek egindako dokumentua ezagutaraztea.



A.3 ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Tokiko Administrazioan LAP garatzea.

AC.3.1 Etengabeko lankidetzaz ezartzea EAEko udalerrietako elkarteekin, **udaletan laneko arriskuen prebentzioa garatzeko.**

AC.3.2 Udalerrietan **amiantoaren arazoa** jorratzea: udal-teknikariak amiantoaren presentzia identifikatzeko eta tratatzeko prestatzea.

AC.3.3 Tokiko Administrazioan **enpresa-jardueren koordinazioa** kontrolatzea.

AC.3.4 Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko 2015-2018 aldirako Euskal Estrategiaren zirriborroa prestatzea.

AC.3.5 Lan Ikuskaritzarekin lankidetzan, ekintzak garatzea; batez ere, laneko arriskuen prebentzioa **herri-lanetan** eta **azpiegitura handien lanetan** integratzera zuzenduta.

AC.3.6 SAFERA-ERANET proiektuan parte hartzen jarraitzea, hazkunde adimentsu eta jasangarri baterako industria-segurtasuneko Europako ikerkuntza koordinatzeko.

AC.3.7 Teknikariek OSALANetik **kanpoko batzorde teknikoetan** duten parte-hartzea berrantolatzea.

AC.3.8 Osasun Sailarekin lankidetzaz ezartzea, OSALANen Kudeaketa Planeko osasun-ekintzak garatzeko arau berriak zehazteko oinarritzko irizpideak eta proposamenak finkatzeko, orobat amiantoari, laneko epidemiologiari eta abarri loturiko bestelako ekintzak zehazteko.

AC.3.9 Gizarte Segurantzaren Espainiako Institutuarekin lankidetzan jardutea, **Desgaitasunak Baloratze**ko Taldeen bileretan parte hartuz.



A.4 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN

AC.4.1 Amiantoaren duten materialak erretiratzeko lan-planen kontrola egitea, Lan Agintaritzaren eskariz.

AC.4.2 Kanpoko prebentzio-zerbitzuek ziurtapen-baldintzak betetzen dituztela kontrolatzea eta **Prebentzio Zerbitzu Mankomunatu**a sortzea, 2012an hasitako lanarekin jarraituz eta Lan Agintek hala eskatuta.

AC.4.3 Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzaz ezartzea, **Makinen Segurtasun Zuzentarauaren** esparruan: Fabrikatzaile, inportatzaile eta merkaturatzaileek arautegia betetzen dutela zaintzea eta kontrolatzea, jadanik existitzen den baterako lankidetzaz-protokoloa garatuz.

AC.4.4 Okindegia eta gozotegietarako bisita-kanpaina diseinatzea eta egikaritzea.

AC.4.5 Eraikuntzaren sektorea: Lan-zentron irekieratik abiatuta identifikatutako obretara bisitak egiteko kanpaina. Behin egin ostean, argitaratu edo ez erabakitzea.

AC.4.6 Telekomunikazio-antenen instalazio-sektorerako **Laneko Arriskuen Prebentziorako Gida bat** edo **informazio-txosten bat** prestatzea.

AC.4.7 EAEko **Cr VI-ren** eraginaren egoera aztertzea. 2015ean egikaritzeko kanpaina espezifiko bat diseinatzea.

AC.4.8 Zuntz zeramikoaren eta aluminio silikatozko artilean eraginpean dauden langileak zaintzea eta kontrolatzea.

AC.4.9 Eraikuntzarako zura kontrolatzeko kanpaina prestatzea.

AC.4.10 Enpresetan eta Administrazioan, elektrizitate estatikoaren eraginpean egoteagatik, sortzen diren **lipoatrofia semizirkularreko** kasuak aztertzen jarraitzea.

AC.4.11 Errepideak mantentzeko lanetan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko dauden material tekniko eta bideoen baliagarritasuna ebaluatzea.

AC.4.12 Altxagailuak maneiatzean jardunbide onak izateko materiala prestatzea.

AC.4.13 Zerbitzuen sektoreko zenbait azpisektoretan **eragile kimikoen** egoera ebaluatzea. Tindategi, garbiketarenpresa, ile-apaindegia, inprimategi eta abarretan segurtasun-fitxak eskatzea eta horien egoera baloratzea.

A.5 LAN BALDINTZAK ETA LAP KUDEAKETAN TXERTATZEA

AC.5.1 SPRIrekin elkarlanean, makineria zaharraren ordez ekipamendu berriak instalatzeagatik enpresei diru-laguntzak ematen dizkien Produkzio Ekipamenduak Modernizatzeko **PEM** programa garatzea.

AC.5.2 Honako dokumentu hauek jendaurrean ezagutaraztea eta/edo aurkeztea:

- Makineria berria eta erabilia erosteko gida.
- Laneko arriskuen prebentzioa lan-ekipoak instalatzeko, mantentzeko eta konpontzeko eragiketetan.

Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspuntua sustatzea.

AC.5.3 Emakunderekin hitzarmen berri bat izenpetzea, baterako ekintzak garatzeko.

AC.5.4 EAEen laneko arriskuen prebentzioaren egoerari buruzko **informazio-sistema** prestatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

AC.5.5 Laneko osasunari buruzko **jardunaldi tekniko** bat antolatzea, zehazteke dagoen gai baten inguruan.

AC.5.6 Amatasunari eta **ugalketa-osasunari** buruzko informazio-txosten bat prestatzea eta ezagutaraztea.

AC.5.7 Misioan gertatzen diren errepideko lan-istripuei buruzko azterketa espezifiko bat egitea, batez ere garraioaren eta logistikaren sektorean.

AC.5.8 Arloan eskumenak dituzten sailekin elkarlanean jarraitzea, **REACH** arautegia EAEko enpresetan txertatzeko.

AC.5.9 EAEko enpresetan **gai kimikoak** identifikatzea, aztertzea eta kontrolatzea, sektoreka. EAEen arrisku kimikoaren egoeraren diagnostikoa egitea.

AC.5.10 Lanean **nanopartikulen** eraginpean egoteagatik sortutako arriskuei buruz dauden informazioa eta ezagutzak biltzea, ebidentzia zientifiko berrienaren ikuspegitik.

AC.5.11 Eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteak sortutako arriskuak eta horiek langileen osasunean duten inpaktua aztertzea.



A.6 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN

AC.6.1 ITSASPREBEN proiektuan aurreikusitako ekintzak gauzatzen jarraitzea.

AC.6.2 NEKAPREBEN proiektuan aurreikusitako ekintzak gauzatzen jarraitzea.

AC.6.3 ELIKAPREBEN proiektua garatzea.

AC.6.4 Kantauri isurialdeko laneko segurtasun eta osasuneko beste hiru institutuekin erakunde arteko lankidetzan jarraitzea. **CANO proiektua.**

AC.6.5 EAEen baxurako arrantzan diharduten **ontziak eta armadoreak bisitatzeko** eta sektorean laneako arriskuen prebentzioa ebaluatzeko kanpaina egitea.

AC.6.6 Arabako Lurralde Historikoan, **nekazaritzako sasoiko lanaren** urteko kanpaina garatzea, EAEko Erakunde arteko Mahaia prestatutako 2013-2016rako Sasoiko Lanaren Arretarako III. Plan Integralari jarraipena emanez.

AC.6.7 Ardoa eta **txakolina** ekoizten duten enpresa txikiei bisitak egiteko kanpainarekin jarraitzea.

AC.6.8 Egurgintzan aritzen diren enpresak bisitatzeko 2012an hasitako kanpainarekin jarraitzea.

AC.6.9 Sektoreko esparru desberdinetarako **dibulgazio-ekintzak** garatzea.

AC.6.10 Azken urteotan **basogintza-sektorean izandako ezbeharrei** buruzko azterketa egitea.



A.7 PRESTAKUNTZAREN ETA IKERKETAREN BIDEZ JAKINTZA SORTZEA

AC.7.1 Laneko arriskuen prebentzioari buruzko e-learning prestakuntza sustatzea, Moodle plataformako open source formatuan.

AC.7.2 Prebentzio-ordezkarien prestakuntza eskuliburua ezagutarazten jarraitzea.

AC.7.3 Laneko arriskuen prebentzioan inplikaturako pertsona guztien jakintza sustatzea, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko alderdi interesgarriari buruzko **jardunaldi tekniko**en bitartez.

AC.7.4 Prebentzio-zerbitzuetako osasun-arloko langileentzat prestakuntza-plan bat garatzea, Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Bilboko Mediku Zientzien Akademiarekin lankidetzan.

AC.7.5 Osakidetzako osasun-langileentzako prestakuntza-plan bat garatzea.

AC.7.6 Euskadiko Lan Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko MIR R4ak OSALANen txandakatzea (Osakidetzako Euskadiko LMko Irakaskuntza Unitatearekin adostutako hitzarmena).

AC.7.7 EHUrekin lankidetzan jardutea, Laneko Arriskuen Prebentzioko **unibertsitate-prestakuntzan** (Hitzarmena garatzea).

AC.7.8 Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko **ikerketaproiektuak** finantzatzea, diru-laguntzen lerro baten bidez.

AC.7.9 2013ko datuekin, **errepideko lekualdatzeetan gertatzen diren lan-istripuen** EAEko egoerari buruz **OSALANek egindako azterketa** eguneratzea eta emaitzak zabaltzea.

A.8. OSASUNAREN ZAINTZA

AC.8.1 Enpresetan **drogazaletasuna** prebenitzeko planak ezartzeko oinarriko orientabideen gida prestatzea. Gida aurkeztea eta jendarteratzea.

AC.8.2 Langileari bere bizi osoan eta ondorenean lagunduko dion **laneko historia klinikoaren eredu**a garatzeko urte anitzeko proiektuarekin lanean jarraitzea: Araudi erregulatuak ezartzea eta EAEko herriarraren historia klinikoarekin koordinatzeko aukerak esploratzea Osakidetzarekin.

AC.8.3 Zur-hautsa arnasten duten langileentzat berariazko osasun-ikuskaritzako protokoloa prestatzea.

AC.8.4 Osasun-ikuskaritza kolektiborako zuzentarauak eta oinarriko irizpideak prestatzea, eta berorien aplikaziorako aholkularitza ematea.

AC.8.5 Lanetik eratorritako minbiziaren ikuskaritza epidemiologikoa egitea; bereziki, mesoteliomarena eta sinu paranasaletako minbiziarena. Jatorria lanean duen minbiziaren ikuskaritza epidemiologikoa indartzea OSALANen.


AC.8.6 Marmol-lantegietan silize-hautsa arnasten duten langileen osasun-ikuskaritzaren kalitatea ebaluatzeko kanpaina garatzea.

EAEn amiantoaren arazoari ekiteko jarduerak garatzea.

AC.8.7 Amiantoaren eraginpean aritzen diren langileen lan-osteko osasun-ikuskaritza egiteko praktika klinikoaren gida prestatzea.

AC.8.8 Ustez amiantoaren eraginpean egon diren langileen zerrenda kudeatzea, lan-osteko osasun-ikuskaritzaren eraginetarako.

moodle



A.9 ARRISKU ERGONOMIKOEN ETA PSIKOSOZIALEN PREBENTZIOA

AC.9.1 EAEko arrisku ergonomikoen egoerari buruzko azterketa bat egitea, batez ere gihar eta hezurrerako nahasmenduei dagokienez. Jarduera-proposamenak egitea.

AC.9.2 Kanpo-instituzioekiko **lankidetzaren sustatzea, ergonomiaren arloan:**

- INVEMA, Makina Erremintaren Estatuko Elkarte (Elgoibar).
- CENEA, Ergonomia Ikerketen Zentroa.
- HUMANA, Biomekanikako eta Ergonomia Aplikatuko Ikerketa Zentroa.
- EHU-UPV, Fisioterapiako Gradua.

AC.9.3 Ergozaintza eta Lanbidetza proiektuen lehen fasea argitaratzea eta bigarren faseko lanak hastea.

AC.9.4 OSALANen Laneko Osasun eta Prebentzioko IV. Jardunaldietako **Laneko Psikosoziologiako proposamenetan** aurrera egitea. Diziplina anitzeko talde bat sortzea.

AC.9.5 Laneko psikosoziologiaren arloan, enpresarietarako **aholkularitza-kanpaina** diseinatzea eta prestatzea.

AC.9.6 Laneko arriskuen prebentzioari loturiko pertsona eta teknikariei **orientatutako prestakuntza-ekintzak** eta materialak garatzea, arrisku psikosozialetako jardunbide egokiei buruz.

AC.9.7 Gure **webgunean** arrisku psikosozialei buruzko atari espezifiko bat sortzea.

AC.9.8 OSALANen **Laneko Psikosoziologiari buruzko V. Jardunaldiak** antolatzea.

AC.9.9 **Arrisku psikosozialen eraginpean daudenek lanean osasuna zaintzeko gida** ezagutaraztea.

AC.9.10 Lan-denborei buruzko azterketarako oinarritzko printzipioak ezartzea, **txandak** eta horiek lan-arrisku psikosozial gisa duten inpaktua jasoz.



A.10 INFORMAZIO SISTEMAK

AC.10.1 OSALANen **Sistema Plana** ezartzen jarraitzea. Urte anitzeko ekintza.

AC.10.2 EAEko prebentzio-zerbitzuen **Osasun Zerbitzuen Erregistroa** nahiz auditoretza-instituzio eta pertsonen erregistroa ezartzea.

AC.10.3 Prebentzio-zerbitzuen **gutxieneko datu multzoan (GDM)** oinarrituta, lan-osasunari buruzko informazio-sistema ezartzea. GDM erregulatzeko araudia prestatzea.

AC.10.4 **Gizarte Segurantzaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiarekin (GSAZN)** hitzarmena sinatu eta garatzea, CEPROSS sistemaren bidez lanbide-gaixotasunen fitxategiak trukatzeko. Lanbide-gaixotasun batzuetarako alerta-sistema bat antolatzea eta OSALANen sistema-planean txertatzea.


AC.10.5 EAEko Osasun eta Prebentzio Zerbitzuek lanean jatorria izan lezaketen gaixotasunen berri ematea xede duen **«Gaixotasun profesionalaren susmoa»** izeneko sistema garatzen jarraitzea.

AC.10.6 EAEko **Laneko Segurtasun eta Osasunaren Adierazleen** sorta osatzea eta Laneko Arriskuen Prebentzioan parte hartzen duten eragileekin adostea.

AC.10.7 EAEko **ezbehar-kopuruari eta gaixotasun profesionalari buruzko urteroko txostenak** prestatzea.

AC.10.8 **Gizarte Segurantzaren Espainiako Institutuarekin** izenpetutako **amiantoaren hitzarmena** ebaluatzea eta horren segimendua egitea.

AC.10.9 OSALANen **izaera pertsonaleko datuak babesteko** politikaren egoera ebaluatzea.



A.11 PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

- AC.11.1 Dokumentuak kudeatzeko eta artxibatzeke sistema bat garatzea. DOKUSSI proiektua.
- AC.11.2 OSALANen laneko arriskuak prebenitzearekin lotuta jasotako **kontsultei erantzuteko** sistema bat garatzea.
- AC.11.3 **Barne Prestakuntzako** Plan bat prestatzea.
- AC.11.4 OSALANen **aurrekontua** hiru hilean behin kontrolatzea. Txostena.
- AC.11.5 OSALANek sinatutako **hitzarmenak** berrantolatzea.
- AC.11.6 OSALANen Kanpaina eta Proiektuetarako **barne-prozedura** bat sortzea.
- AC.11.7 OSALANen **barne-komunikazioa** garatzea.
- AC.11.8 OSALANen **zerbitzu-karta** eguneratzea eta sinplifikatzea.
- AC.11.9 OSALANen **Arautegi Katalogoa** eguneratzea eta berriro editatzea.
- AC.11.10 Eusko Jaurlaritzaren proiektuan parte hartzea, kudeaketa publiko aurreratuko eredu bat ezartzeko.



A.12 JARDUERA INSTITUZIONALA

- AC.12.1 Lan, Osasun eta Justizia Aginteez egindako **laguntza teknikoko** eskaerei erantzutea, bai eta Lan Ikuskaritzak eta prebentzioarekin lotutako organismo, enpresa eta erakundeek eta langileek egindakoei ere, OSALANen eskumenei dagozkien gaietan.
- AC.12.2 **Heriotzak eragin dituzten laneko istripu, laneko istripu oso larri, larri eta biktima ugari eragin dituzten laneko istripu guztiak** ikertzea, OSALAN osorako eguneratutako eta bateratutako prozedura baten bidez.
- AC.12.3 **Irekiera** jakinarazi duten Industria, Zerbitzu eta Lehen Sektoreko enpresen lan-zentroetako Laneko Arriskuen Prebentzioa gainbegiratzea.
- AC.12.4 OSALANen **Higiene Industrialeko Laborategia** sustatzeko plana.
- AC.12.5 **Lanarekin erlazionatutako gaixotasunak** ikertzea, OSALAN guztirako eguneratutako eta bateratutako prozedura baten bidez.
- AC.12.6 EAEn identifikatutako **legionella**-kasuek jatorria lantokian duten ikertzea eta dagozkien txostenak idaztea, Osasun Sailak eskatuta.
- AC.12.7 **Osasun-baimenen eta prebentzio-zerbitzuen kontrolaren** arloko eskumenak gauzatzea.
- AC.12.8 OSALANen **Egiturari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren** zirriborroa prestatzen jarraitzea.
- AC.12.9 **Egungo ezbeharren** eredu aztertzea eta identifikatzea.
- AC.12.10 Lan Zuzendaritzarekin akordio bat egitea, **laneko istripuen parteak** behar bezala bete daitezten sustatzeko (batez ere, alta-datak, bajen kasuan) eta laneko istripuen **larritasun-kalifikaziorako** irizpide logikoagoak ezartzeko.
- AC.12.11 Laneko Osasunaren Unitateak prebentzio-zerbitzuen arloan osasun-aginte gisa duen esku-men-arloari loturik OSALANen jaso diren **salaketei** erantzutea.

A.13 LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA

- AC.13.1 Enpresei eta, zehazkiago, enpresa txiki eta ertainei laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa-lanetan aholkularitza eta laguntza eskaintzea.
- AC.13.2 OSALANek egindako kanpainen emaitzak eta gida teknikoak ezagutarazten eta zabaltzen laguntzea.
- AC.13.3 Gida teknikoak sinplifikatzea eta/edo enpresetako ohiko hizkerara egokitzea, hobeto uler eta aplika daitezten.
- AC.13.4 Enpresa- eta sindikatu-erakundeek antolatutako foro teknikoetan parte hartzea.
- AC.13.5 E-learning prestakuntzan (Moodle plataforma) lankidetzan aritzea.
- AC.13.6 Laneko Arriskuen Prebentzioko unibertsitate-prestakuntza Gipuzkoako eta Arabako kanpuse-tara zabaltzeko aukerak aztertzea.
- AC.13.7 Industria-sektoreko enpresetan gertatzen diren lan-istripuetan azpikontratazioak duen inpaktua ebaluatzea.
- AC.13.8 Enpresek eta prebentzio-zerbitzuek egiten dituzten arrisku-ebaluazioen barnean arrisku psiko-sozialak jasotzeko aukera aztertzea.

ERANSKINA: OSALANek 2014rako AURREIKUSITAKO JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

EVENTO / JORNADA	AURREIKUSITAKO DATA	TOKIA
Informazio-jardunaldia: “Prestakuntza Plana eta Laneko Historia Klinikoa” , prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuei zuzendua	Otsailak 19 (11:00-14:00)	Bilboko Bidebarieta liburutegia
Aurkezpena: “OSALANek 2013an diruz lagundutako ikerketa-proiektuak”	Otsailak 28	Eusko Jaurlaritzako ekitaldi-aretoa. Kale Nagusia,85, Bilbo
Aurkezpena: “Laneko arriskuak prebenitzeko eskuliburua, prebentzio-delegatuei zuzendua”	Martxoak 14	Eusko Jaurlaritzako ekitaldi-aretoa. Kale Nagusia, 85, Bilbo
Jardunaldia: “Lanbide-gaixotasunen arloko lege-erantzukizunak”	Martxoak 28	Bilbao Port-eko ekitaldi-aretoa
Aurkezpena: “Lanean osasuna zaintzeko arrantza-sektoreko gidaren III. zatia.”	Apirilak 15	Bilboko Itsas Museoko ekitaldi-aretoa
Aurkezpena: “Makineria erosteko gidak” (makineria berria eta makineria erabilia)	Maiatzak 16	Eusko Jaurlaritzako ekitaldi-aretoa, Kale Nagusia, 85 Bilbo
Aurkezpena: “EAEn 2013an izandako ezbeharrei eta lanbide-gaixotasunei buruzko txostena”	Ekainak 11	Eusko Jaurlaritzako ekitaldi-aretoa. Kale Nagusia, 85, Bilbo
Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko OSALANen Udako IV. ikastaroa Gaiak: “Lanaren eraginez sortutako arnas-gaixotasunak. Erregistroa eta epidemiologia” eta “Goiko gorputz-adarraren arrisku ergonomikoen ebaluazioko berrikuntza”	Ekainak 26 eta 27	Miramar Jauregia Donostia
Jardunaldia: “Eraikuntza industrialeko obra handietan segurtasuna kudeatzeko jardunbide egokiak. Esperientzia praktikoak”	Irailak 12	Iberdrola Dorreko ekitaldi-aretoa
Europako Biltzarra: “Future Safety & Security Research in Europe” , PESIrekin lankidetzan	Irailak 18, 19	EHUko paraninfoa
Jardunaldi teknikoa: “Osasun Zaintza Berezirako Protokoloaren aurkezpena: sudurreko hobien Adenokarzinoma eta sinu paranasalen egur hautsaren eraginpean dauden langileengan”	Irailak 26	Itsas Museoko ekitaldi-aretoa
Jardunaldi teknikoa: “Prebentzio-zerbitzuen osasun-kudeaketaren etorkizuna. Hausnarketak, 843 Errege Dekretua onetsi eta bi urtera”	Urriak 10	Eusko Jaurlaritzako ekitaldi-aretoa, Kale Nagusia, 85 Bilbo
Aurkezpena: “Enpresan drogazetasuna prebenitzeko gida”	Urriak 17	Euskalduna jauregia Bilbo
Jardunaldi teknikoa: “Ugaltze-osasuna eta lana”	Urriak 31	Vitoria-Gasteiz
OSALANen V. Jardunaldiak: “OSALANen laneko psikosoziala”	Azaroak 20 eta 21	Euskalduna jauregia Bilbo
Jardunaldi teknikoa: “Zahartzea eta lana”	Abenduak 12	Itsas Museoko ekitaldi-aretoa



OHARRA: Ekitaldiak edo jardunaldiak aldatu egin daitezke, unean uneko interesaren edo egokitasunaren arabera. Bestalde, aurreikusitako datak eta lekuak ez dira behin betikoak. Nolanahi ere, aldaketarik izanez gero, behar besteko aurrerapenez adieraziko ditugu gure web orrian.



KUDEAKETA PLANA
OSALAN

2014

